

ANTSO JAKITUNA FUNDAZIOA

Kristalezko etxea zain

Datorren urteko udaberrirako Betoñun egoitza berria izango du Antso Jakitunak.

A. Amenabar. Gasteiz

Senda pasealekuko Zulueta Jauregia txiki geratu da Antso Jakituna fundazioak gordetzen dituen milaka eta milaka dokumentuak gorde ahal izateko. Hamazazpi urteren ostean, etxe berria izango dute Betoñun (Araba); 2009ko udaberrirako bertan izango dira, Krea arte egitasmoarekin batera.

Kristalezko eraikin dotore batek hartuko du liburutegi eta artxibategia, Betoñuko moja komentuari ondoan, Karmelitarren kanposantua zegoen esparruan. Kristalezko laukizuzen handi bat izango da liburutegi a, eraikinaren erdian argi sakonune handia izango duena, 1.650 metro koadroko esparrua erakutsiz. Bertan egongo da fundazioko artxibategia, areto teknikoak eta ikerketa zein kontsultarako areto zabala eta hitzaldietarako aretoarekin.

Fundazioko zuzendari Carmen Gomezek azaldu moduan banaketa arrazionala izango du eraikin berriak, lanerako egitura jarraiarekin. Oraingo lekua ederra da, baina jauregi bat da, eta eraikinaren banaketa dela eta, lan prozesurako oztopoak izaten dira. Lana erraztuko du berriak. Fundazioa eraikinera moldatu beharrean, Betoñuko eraikina hasieratik fundazioaren beharretara egokituko dutela nabarmendu du.

Egoitza berriak abantaila ugari ekarriko ditu, Gomezen arabera: Apustu garrantzitsua da, artxibo osoa behar bezala gorde eta lana arinduko du nabarmen. Alde txarren bat bilatzekotan, kokalekua da zalantza nagusia: Hiriburutik kanpo geratuko da, eta herritarrentzat beharbada urruti. Dena den, Krea arte proiektua eta Baskonia inguru berriarekin batera, Betoñuko aldea suspertzeko aukera izan daiteke. Espero dugu jendeak ondo erantzutea. Urteekin, material ugari pilatu da, eta toki falta ere sumatzen dute egungo egoitzan. Hasi dira lurrian kutxak pilatzen. Une honetan Zulueta jauregiarekin batera, unibertsitatean ere gordeta dugu materiala, leku faltagatik. Eta, askotan, arazoak izaten ditugu gordetakoa aurkitzen. 85.000 monografia eta 10.000 aldizkari baino gehiago, hamabi familia artxibo eta milaka irudi digital; hainbeste kutxarentzako lekurik ez dago jada. Jauregira etorri eta zazpi urtera txiki geratu zitzaigun; oso ona da hori, bizirik dagoela esan nahi du.

Jakingarriak

Kokalekua: Zulueta jauregia, Gasteizko Senda pasealekuan.

Orduetgia: 10:15-13:45 / 16:15-19:45

Telefonoa: (0034) 945-14 78 00

Web gunea: www.fsancho-sabio.es